



Fitxa teknikoa. *Txomin Ipurdi.* Joxe Arratibel-Patxi Zubizarreta/Antton Olariaga. Erein. 2001

Liburuaren aurkezpena

Euskal tradizioak sortu duen piezarik garrantzitsuenetakoa da Txomin Ipurdi. Tradizioak azaltzen duen ildotik, haur batek bere etxea uzten dueneko pasadizoa kontatzen du. Arriskuz beteriko bidaiari heltzen dio mutiko horrek bizimodu hobego baten bila. Mutiko bizkorrek bere alde jartzen ditu, ustez, kontra izango lituzkeen elementuak: azeria, otsoa, ibaia... Haien laguntzaz burutzen du Erregeren etxerako ibilbidea eta haien laguntzaz lortzen du Erregeri eta haren agintaritzari aurre egitea eta behar zuena lortzea.

Txomin Ipurdi kontatzeko istorio bat da, ahoz kontatzeko alegia; eta liburu honetan Patxi Zubizarretak egindako moldaketak errespetatzen du Joxe Arratibelek sortu zuen testua. Kasu honetan, Antton Olariagaren ilustrazioek ekarpen berezia eskaintzen diote kontakizunari; ipuinak bere baitan azaltzen duen mundu iluna eta gogorra begi bistan jartzen diolako irakurleari.

Haurren garapenaren une garrantzitsu bat azaltzen du ipuin honek: haurrak helduen babesa utzi eta bere buruaren jabetza lortzen duen unea, hain zuzen ere. Ibilbide horretan, haurrak gainditu behar ditu bere ezinak, beldurrak eta munduak agertzen dizkion oztopo eta arrisku guztiak.

Nola kontatu

Ipuina ahoz kontatzeko da aproposa, gure hitzetan.

Lehendabizi helduak kontatu, gero helduak irakurri eta liburuaren ilustrazioak ikusi; azkenik, neska-mutilak irakurriko du, modu autonomoan, ilustrazioak gozatzen dituen bitartean.

Proposamenak bideratzen

Ipuin hau kontatzeko da.

Egitura erritmikoa antzeppen baten lagungarria izan daiteke.